



«Umeen burmuinean hizkuntzak ikasteko topea ez dugu ezagutzen»

Hizkuntzak burmuinean nola itxuratzen diren ikertzen du Itziar Lakak (Bilbo, 1962), “bertan garatzen baita mintzaira”. “Neuro-ez-dakit-zer” bezalako etiketak ez zaizkio gustatzen eta hizkuntzalaria dela esaten du. EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko ikertzailea da.

ANDER EGILUZ

Argazkia: Iñigo Azkona

DOKTORE TESIA Noam Chomsky-ren lantaldean egin bazuen ere, apaltasun osoz, curriculumetik zerbait azpimarratzekotan, berarekin lan egin duen jende gaztea nabarmendu du. Jakin-minak hurbildu zuen bera zientzia mundura, horixe baita giltza: “Jakin-mina barik, ikertzailea hilda dago”.

Zertarako balio du hizkuntzak?

Hizkuntzak hamaika gauzatarako balio digu hizkuntzazko espeziea garen neurrian. Askok uste dute hiz-

kuntzak hitzen esanahia komunikatzeko baino ez duela balio, alegia: “Etxea zuria da”. Baina hizkuntza, gizakiontzat, berariazko komunikazioa baino askoz harago doa. Tximinoek, adibidez, orduak ematen dituzte batak besteari zorriak kentzen, eta horri *grooming* deitzen zaio. Guk horixe bera hizkuntzarekin egiten dugu. Askotan berba egiten dugu ezer esan beharrik ez dugunean, igogailuan gaudenean adibidez, asko kostatzen

zaigu isilik egotea. Hizkuntzarekin norberaren egoera emozionala, identitatea eta beste hamaika gauza komunikatzen ditugu.

Katalunian, adibidez, burmuineko ebakuntza baten ostean afasia izan duten pazienteei, hizkuntza galdu eta erdizka berreskuratutenei, galdeztzen diete zer nahiago luketen: ebakuntza aurreko egoerara joan, alegia, hilko zituen gaixotasunarekin baina hizkuntzarekin; ala gaixotasuna garaitu baina bidean hizkuntza galduz. Eta

guztiek erantzuten dute nahiago dute-la hizkuntza mantendu eta hil. Niri horrek asko pentsarazi zidan. Imaginatu ere ezin dugun egoera da: pentsatu egiten duzu, baina ezin duzu ezer komunikatu. Leonard Bloomfield (1887-1949) hizkuntzalariak esaten zuen moduan: hizkuntza guretzat arnas hartzea modukoa da.

Alabaina, determinismoak dioena ere ez da egia; alegia, hizkuntza batek mundu ikuskera bat dakarrela. Lehenengo kontzeptua sortzen da buruan, eta gero, horri, hitz bat jartzen diogu. Gizaki guztiok antzematen dugu errealtatea berdin antzera.

Zerk ematen digu hitz egiteko gaitasuna?

Hitz egiteko gaitasuna genetikoa da. Gizakia bazara hizkuntza gertatuko zaizu. Eta gertatuko zaizu esaten dut, hizkuntza ez baita nahita ikasten den zerbait, burmuinean gertatzen den zerbait baizik; amaren sabelean haztea bezala. Behin gaitasuna izanda, espozizioa behar duzu, inor ez baita jaio hitz egiten jakinda. Hitz egiteko gaitasunaren zatitxoak bai ikusten ditugu beste espezie batzuetan, txori kantarietan adibidez, baina gaitasun osoa gizakiok baino ez daukagu.

Azken boladan FOXP2 deritzon gene erregulatzailer bati buruz asko hitz egin da, hizkuntz gaitasunarekin zerikusi zuzena duelako. Gene hori hainbat piezako puzzle bateko zatitxo bat baino ez da.

Puzzlearen pieza guztiak ezagutuko ditugun garaia helduko da, ni hilda egongo naiz, baina ez gaude urrun.

Zer gertatzen da ume txikien burmuinetan hizkuntzaz jabetzen hasten direnean?

Hizkuntza ume txikien burmuinetan nola garatzen den ez dakigu guztiz. Badakigu, ordea, jaio aurretik hasten dela prozesua. Umea sabelean dagoen azken hilabeteetan badago adi hizkuntza soinueta, eta ama hizkuntza, erritmikoki behintzat, gainontzekoengandik desberdintzeko gai da.

Patologiarik ez duten ume txiki guztiak berdinak dira, berdin ikasten dituzte hizkuntzak eta ez dute azenturik. Behin nerabetasuna pasata norba-

nakoen arteko aldea askoz handiagoa da. Horregatik nerabetasuna igarota badaude pertsonak erraztasun ikaragarria dutenak hizkuntzak ikasteko, eta beste batzuk ezinezkoa dutenak hizkuntza gehiago ikastea; topera heldu direnak.

“Gizakia bazara hizkuntza gertatuko zaizu. Gertatuko zaizu diot, hizkuntza ez baita nahita ikasten, burmuinean gertatzen da, amaren sabelean haztea bezala da”

Ume txikien burmuinen topea, haatik, ez dugu ezagutzen. Horren adibide dira Amazoniako zenbait tribu. 50 laguneko tribuetan, bost edo sei hizkuntzarekin bizi diren haurrak daude. Argi dagoena da umeek eta helduek ez ditugula hizkuntzak mekanismo berdinarekin ikasten.

Eta zein da hizkuntzak ikasteko metodo egokiena? Eskoletan zenbat eta goizago, zenbat eta hizkuntz gehiago hobeto?

Metodo egokiena egoera naturaletan ikastea da; eta maiteminduta bazaude hobeto! Kar-kar! Hormonek asko laguntzen baitute hizkuntzak ikasterako orduan. Zenbat eta goizago, zenbat eta hizkuntz gehi-

“Tximinoek orduak ematen dituzte batak besteari zorriak kentzen. Guk horixe bera hizkuntzarekin egiten dugu”

go sartzearena konplexua da. Teorikoki ondo legoke, baina gauza asko izan behar dira kontuan: irakasleen gaitasuna, eskola giroa egoera naturala ez dela ezin daiteke ahaztu, eskola orduak mugatuak direla ere ez... Teoriatik aplikazioranzko bidea luzea eta geldoa da, azkarregi egitea arriskutsua da.

Konplexutasun maila desberdineko hizkuntzek eragin desberdina al dute burmuinean? Alegia, ez dela gauza bera txinera, ingelesa eta keinu hizkuntza...

Ez dago hizkuntzarik gainontzekoak baino konplexuagoa denik. Txinera gaitza gertatuko zaigu ikasteko tonala delako, baina geure ama hizkuntza tonala izango balitz, aise ikasiko genuke, eta ingelesa nekez. Eta keinu hizkuntza aipatu duzula, nik ere banuen aurreiritzi bera. Alegia, keinu hizkuntzak guk hitz egitean egiten ditugun keinuen antzeko zerbait izango zirela, eta guztiz okerra da uste hori. Izatez, burmuinentzat keinuak (zerbait seinalatzea, adibidez) harreman espazialak dira, eta ondorioz, eskuin hemisferioarekin lantzen ditu; baina, keinu hizkuntzekin, burmuinak ezker hemisferioarekin egiten du lan, beste hizkuntzekin gertatzen den bezala. Burmuinari berdin dio adierazbidea soinuakoa, irudizkoa edo dena delakoa den, komunikatzeko esfortzu bera egiten du.

Zer berri zure laborategian?

Bi ikerketa lerro ditugu: bata umeekin eta bestea helduekin. Umeekin, katalan-gaztelania eta euskara-gaztelania elebidunek dituzten ezaugarri desberdinak gaude bilatzen. Azken finean, katalana eta gaztelania oso antzekoak dira euskararekin konparatuz, eta agian buruan gauzak ez dira modu berean antolatzen.

Helduekin, euskara-gaztelania elebitasun kasuak aztertzeaz gain, euskararen beste berezitasun batzuk ikertzen ditugu baita ere. Literatura handia dago hizkuntzen morfologiari buruz, baina aztertutako hizkuntza gehienek erro indo-europarra dute; eta euskarak, adibidez, ez du jatorri bera. Guk hizkuntza guztiak batzen dituen arau orokorra aurkitu gura dugu.

Euskara ikertzearen garrantzia ez da bakarrik euskaldunak garelako, zientzia munduarentzat ere oso interesgarria da. Hizkuntza zer den jakiteko, zenbat eta hizkuntza gehiago ikeritu hobe. Eta hemengo hizkuntza tipologikoki oso desberdina da, biologiari ezagutzen ez duzun animalia aurkituko bazenu bezala. ■